


Ahalegin osasungarria kontsumitzaileen alde

“EROSKI, Zure osasunaren alde” programa saritu du Nutrizioko eta Elikadura Zientzietako Espainiako Akademiak



Egun bakarreko ahalegina ez da aski kontsumitzaileek ohitura osasungarriak har ditzaten. Adibidez, egunero ariketa fisikoa egin eta modu orekatuan elika daitezten. EROSKIk sortu zene-tik beretik agertu izan du konpromisoa bere bezeroen osasuna eta ongizatea zaintzeko, eta hainbat ekimen eta baliabide erabili izan ditu herritarrak ohar daitezten zer-nolako onurak dakartzan bizimodu osasungarri horrek.

Azkenekoa, ‘EROSKI, Zure osasunaren’ alde izene-ko programa, non hainbat ekimen bildu dituen helburu horiek iristeko: informazio- eta susta-pen-kanpainak egingo ditu, elikagai batzuk ber-ritu eta beste zenbait produktu egokitu izaera nutrizional jakina eduki dezaten. Ahalegin horrek guztiak aitortza jaso du orain, eta Nutrizioko eta Elikadura Zientzietako Espainiako Akademiak Mataix 2013 sarietako bat eman dio, “Ekimen pribatu edo enpresa-ekimen onena” bereizten duena, hain zuzen.

SEMAFORO NUTRIZIONA-LA. Ontzien aurrealdean ageri da, eta produktuei buruzko informazio nutri-zionala egoki interpretat-zeko laguntza ematen du. Kolore bidezko sistema bat erabiliz, elikagai horretako errazio batek zenbat kaloria, gantz, gantz saturatu, azukre eta gatz daukan es-aten du, eta kopuru horrek zenbateko portzentajea osatzen duen mantenu-gai horien Eguneko Kopuru Go-mendatua aintzat hartuta.

NUTRIZIO ARLOKO AHOLKULARITZA. Zenbait garaitan, EROSKIk nutrizio-nistak gonbidatzen ditu bere saltokietara, bezeroei infor-mazio erabilgarria eman die-zaieten zuzen-zuzenean. Bai-na gune iraunkorra ere badu horretarako: bere web-orrian (www.eroski.es), Nutrizio arloko Aholkularitza Zerbit-zua eskaintzen du, non kont-sumitzaileek galderak eta zalantzak aurkez ditzaketen nutrizioaren eta elikaduraren inguruan. Nutrizionista talde batek erantzuten die gero kontsumitzaileek egindako galdera guztiei, 24 orduren buruan egin ere.

EROSKI MARKAKO PRODUKTUAK

Nutrizioko eta Elikadura Zientzietako Espainiako Aka-demiak emandako saria ez da izan programa jakin ho-rrentzat soilik; erakunde horrek berariaz nabarmendu du EROSKIk zer-nolako ahalegina egin duen bere markako produktuak egokitzeko, baliagarriak izan daitezten izaera nutrizional berezia duten kontsumitzaileentzat ere.

EROSKI Sannia. Urtebete pasatxo daramate sail horre-tako produktuek merkatuan. Elikadura arloan ageri di-ren desorekarik ohikoenei irtenbide bat emateko sortu dira: jendeak, izan ere, komeni baino azukre, gantz eta gatz gehiago hartzen du, eta hori osasunaren kalte-tan izaten da. Sail horretako produktuek, hain zuzen, ohikoek baino gutxiago izaten dute gatz, azukre eta gantz, eta osasunaren mesederako diren beste zen-bait mantenu-gai eransten zaizkie: zuntza, Omega-3 edo fitosterolak.

Landare-gantz partzialki hidrogenaturik ez. EROSKIkren bezeroek eurek eskatu zuten olio hidrogenaturatik datozen gantz horiek (trans gantzak ere esaten zaie) desagerrarazteko, oso kaltegarriak baitira osasuna-arentzat. EROSKIk aintzat hartu zuen eskabidea, eta geroztik, beste gantz batzuk erabiltzen ditu bere markako hainbat produktutan: margarina begetalak, opil industrialak, zizka-mizkak, galletak edo aurrez prestatutako jakiak.

Glutenik gabea. EROSKIk produktu bereziak atera ditu zeliakoentzat, glutenarekiko intolerantzia dutenent-zat (proteina bat da glutena, eta zerealetan agertu ohi da; adibidez, garian, oloan edo zekalean). “Glute-nik gabea” (“Sin Gluten”) oharra ageri dute produktu horiek guztiak.



Elkarte eta enpresa garrantzitsuen laguntzarekin

Nutrizioaren, elikaduraren eta dietetikaren alorrean ematen duten saririk aipagarrienetakoa jasotzeak bultzada handia ematen dio gure lanari, zeina lehen ere erakunde nabarmen eta eredu-garri askok babestu baitute. Izan ere, hainbat erakunderen laguntza jaso du ‘EROSKI, Zure osasunaren alde’ ekimen berritzaileak: Mediterraneoko Dieta Fundazioa, Dietisten eta Nutrizionisten Espainiako Elkarte (AEDN), Osteoporosiaren eta Eritasun Metaboliko Oseoen aurkako Fundazio Hispanoa (FHOEMO), Familiako Hiperkolesterolemiaren Fundazioa eta Espainiako Zeliakoen Elkarte Federazioa (FACE). Horretaz gain, eskuz esku aritzen gara ohitura osasungarriak sustatzearen alde ari diren punta-puntako markekin.

INFORMAZIO- ETA FORMAZIO-KANPAINAK

Helburu argia dute horiek guztiak: bizimodu osasungarriaren inguruko informazioa ematea kontsumitzaileei. Eta, horretarako, honako bitarteko hauek guztiak erabiltzen ditugu:

NUTRIZIO-ESKOLA. EROSKIkren web-orrian badago beste formazio-ekintza bat ere bizi-ohitura osasungarriaren berri ikasteko. Hilabetez hilabete, nutrizio-eskola egiten da, eta modu orekatuan elikatzearekin zer-rikusia duten gaiak lantzen dira; adibidez, zer-nolako elikagaiek ematen dizkiguten bitaminak, eta zer egin dezakegun mantenu-gai horiek areagotzeko.

HAURREN GIZENTASUNARI AURRE HARTZEA. Zenbait ekintza eginez, haurrei ikusarazi nahi zaie oso garrantzitsua dela bi-

zimodu osasungarria egi-tea, eta helburu horrekin, egunero ariketa egiteko ohitura hartzea eta modu osasungarri eta orekatuan elikatzea. Elikadura eta Ohi-tura Osasungarri buruzko Heziketa Programa da abia-razi duen ekimenik berriena, Tix eta Loy pertsonaiak protagonista dituen.

BIHOTZAREN ETA HEZURRETAKO OSASUNAREN ALDEKO KANPAINAK. Bi-hotzaren Mundu Eguna edo Osteoporosiaren Mundu Eguna antolatzen dituzte erakundeek jendeari kon-tzientzia harrarazteko, eta

horiekin bat eginez, EROSKIk ere beti antolatzen ditu osasunaren aldeko kanpaina espezifikoak. Zenbaitetan, gaitzaren inguruko hitzaldiak antolatu eta eskuorriak argitaratzen ditu, herritarrei adierazteko zein den elika-dura osasungarria egiteko erdua gaitz horrentzat, eta, beste zenbaitetan, salmen-tetatik atera duen diruaren zati bat ematen die gaitz horien inguruan lan egiten duten fundazio eta elkartei.

